

Lanaren aldaketen eragina sindikalismo abertzalearen berrikuntza estrategikoan: ELA eta LAB sindikatuak (1976-2008)

Tesiaren egilea: Eki Etxebarria Respaldiza

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila/Institutua: Politika eta Administrazio Zientziak Saila

Doktorego-programa: Gizartea, Politika eta Kultura

Jakintza-arloa: Zientzia Politikoak

Tesi-zuzendaria: Ane Larrinaga Renteria eta Iñaki Barcena Hinojal

Tesiaren laburpena:

Lan-munduko aldaketek arazo batzuk sortu dituzte lanari sozialki esleitzen zaizkion eginkizunetan. Hainbat faktorek eragin dute lanak gure gizartean betetzen duen paperaren inguruko krisia, hala nola ekoizpen-jardueraren irabaziak gutxitzeak, lan-baldintzen prekarizazioak, egiturazko langabeziak, soldaten murrizketa erlatiboak, lana antolatzekeo modu berriak, indibidualizazioak, etxeko langileen aitortza-eskaerak... Krisi hori ez da lanaren garrantzia galtzearen ondorioa, baizik eta, kontrara, lanari egokitutako itzelezko funtzioengatik, asebate ezin direnak.

Lanaren krisiari lotutako faktore horiek, sindikatuen hautu estrategikoekin batera, sindikalismoaren krisi-egoera ekarri dute. Horrek kolokan jarri du haien boterea eta ahalmena langile-klasea ordezkatzeko eta beronen bizi-baldintzak hobetzeko orduan. Gauzak horrela, sindikalismoa behartuta dago berrikuntza estrategiko bat martxan jartzera.

Halaber, egoera berezia antzematen dugu Euskal Herriko sindikalismo abertzalearen barruan, non ELA eta LAB diren nagusi. Izan ere, Europako sindikalismoak bizi dituen zailtasun estrukturalengatik eta Euskal Herriak bizi duen egoera politiko eta instituzional bereziagatik ere, euskal sindikalismoa (ELA eta LAB bereziki) gai izan da «osasun» maila hobea mantentzeko. Arrakasta hori bi sindikatuek, bakoitzak bere aldetik, martxan jarritako berrikuntza estrategikoen ondorio da. Izan ere, lanaren krisiaren testuinguruan, beren boterea hobetzea ahalbidetu die sindikatuak.

Berrikuntza horiek ulertzeko, sindikatuek beren agirietan 1976 eta 2008 bitartean emandako diagnostiko- eta pronostiko-markoen azterketa kualitatiboa egin dugu, batez ere kongresuetan igorritako dokumentuetara joz. Dokumentu-azterketaren osagarri gisa, sindikatuetakoz zenbait buruzagi elkarrizketatu ditugu.

Laburbilduz, honako hipotesi orokorrak egiaztatu ditugu, zenbait hipotesi zehatzagorekin garatu ditugunak:

- (1) ELAk eta LABek bilakaera eta berrikuntza estrategiko zehatza hezuramaitu dute lanaren krisiaren eta lan-arloko aldaketen aurrean. Horien artean, esku-hartze sozial eta politikorako joera eta ekintza-forma gatazkatsuak baliatzeko hautua azpimarra ditzakegu, Euskal Herriko testuinguru bereziarekin lotuta daudenak.
- (2) Hego Euskal Herrian jasotako ezohiko testuinguru instituzional, politiko eta laborean, euskal sindikalismo abertzaleak (ELAk eta LABek, gure azterketan) erantzun berezia eman die lanaren krisiarekin zerikusia duten faktoreei, eta baita lanaren antolaketa-moduari lotutako aldaketa estrukturaleri ere. Hori dela eta, gai izan dira inguruko herrialdeetako sindikatuek baino osasun-maila eta errotze sozial hobea izateko, egiturazko krisiak eta lan-harremanen ahultasun instituzionalak ezaugarritutako gaur egungo testuinguruan.